

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

## **GAI DESEROSOAK HAUR LITERATURAN:**

**Heriotza gaixotasun baten ondoren**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA: Egoitz Blanco Gómez**

**Zuzendaria: Txabi Arnal Gil**

**2019-2020**

Jaiotzak heriotza du zor, baina bizitzak heriotzak gainetik iraunen du.

Lan hau, umeak ginenean bidean galdu genituen familiako kide guztiei eskainia dago.

Bereziki zuentzat, Félix eta Antonio.

## **LABURPENA**

Gure lanaren helburua gaur egungo Haur eta Gazte Literaturak heriotzari eskaintzen dion tratamendua aztertzea da, bereziki gaixotasunen ondorioa den kasuetan. Aurretiaz gai hau pertsona nagusientzat ulertzeko erraza dela pentsatzen dugu, baina ez da horrela gertatzen umeekin. Eskolak gai honen inguruan buru belarri lan egin behar du, horrela umeei lagundu ahalko die dolu prozesua bizi behar dutenean. Haur eta Gazte Literaturaren idazleek heriotzaren gairi buruz idaztea normaltzat hartzen dute. Literatura mota honek ezinbesteko laguntza eskaintzen du, baita errealitatea adibide desberdinekin erakusteko aukera ere, honela barne arazoak konpontzeko erraztasuna emanez. Haur eta Gazte Literaturak umeari heriotzaren momentu txarrak ulertzen eta emozioak bideratzen laguntzen dio. Liburua ezinbesteko abiapuntu bihurtzen da umek errealitatea uler eta doluarekin lehenengo esperientzia hori leun dezan. Gradu Amaierako Lan honek hamar lan literario desberdinen azterketa bat proposatzen du, aurreko guztia ondo ulertzeko asmoarekin.

Hitz gakoak: Haur eta Gazte Literatura, dolua umeen artean, liburua baliabide hezigarria bezala.

## **RESUMEN**

Nuestro trabajo tiene como meta analizar de qué manera se trata la muerte en la Literatura Infantil y Juvenil, concretamente cuando ella es producto de una enfermedad sufrida por un familiar del protagonista. Este tema que a priori resulta fácil de comprender para los adultos, no lo es tanto para los niños. La escuela debe implicarse en esta tarea poniendo a su alcance todos los medios necesarios para educar sobre este tema y ayudar a los niños en posibles procesos de duelo. Los escritores infantiles en sus obras tratan la muerte como un hecho natural. La literatura infantil y juvenil aporta un apoyo comprensible, muestra esta realidad a partir de ejemplos y experiencias que ayudan a resolver conflictos internos. La literatura infantil permite al niño comprender la triste experiencia de la muerte, canalizar emociones y adquirir madurez. El cuento se convierte en una pieza clave para que el niño comprenda esta realidad, y alivie su sufrimiento en experiencias de duelo. Este Trabajo de Fin de Grado propone realizar el análisis referido a partir de una selección de diez obras literarias infantiles.

Palabras clave: Literatura Infantil y Juvenil, duelo en los niños, cuento como recurso educativo.

## **ABSTRACT**

Our study aims to analyze how death is treated in the current Children and Youth Literature, specifically when that is product of an illness and it's suffered by the family of the protagonist. This topic, which is a priori easy to understand for adults, is not so much for children. The school should be involved in this task, putting at its disposal all the necessary means to educate on this subject and to help the children in possible mourning processes. Children's writers in their works treat death as a natural fact. Children and Youth Literature provides understandable support, shows this reality from examples and experiences that help resolve internal conflicts. Children's literature allows the child to understand the sad experience of death, to channel emotions and gain maturity. The story is a key for the child to understand this reality and relieve his suffering in real experiences. This End of Grade Work proposes to perform the referred analysis from a selection of ten children's literary works.

Keywords: Children and Youth literature, bereavement/grief in children, tale as an educational resource.

# AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	7
1.1. Justifikazioa.....	8
2. Marko teorikoa.....	10
2.1. Zer da Haur eta Gazte Literatura.....	10
2.2. Euskal Haur eta Gazte Literaturaren bilakaera, sorreratik gaur eguneraino.....	10
2.3. Heriotza, dolua eta eskola.....	12
2.4. Heriotzaren ulermena 6-12 urte bitartean.....	13
2.4.1. Nola azaldu haurrari heriotza.....	15
2.5. Dolua eta bere faseak 6-12 urte bitartean.....	15
2.5.1. Dolu motak.....	16
3. Metodoa.....	18
3.1. Ikerketaren helburuak.....	18
3.2. Hipotesiak.....	18
3.2.1. Lehenengo hipotesia.....	18
3.2.2. Bigarren hipotesia.....	19
3.2.3. Hirugarren hipotesia.....	19
3.2.4. Laugarren hipotesia.....	19
3.2.5. Bostgarren hipotesia.....	20
3.2.6. Seigarren hipotesia.....	20
3.2.7. Zazpigarren hipotesia.....	21
3.2.8. Zortzigarren hipotesia.....	21
3.2.9. Bederatzigarren hipotesia.....	21
3.2.10. Hamargarren hipotesia.....	22

3.3. Informazioa jasotzeko baliabideak.....	22
3.4. Korpus literarioa.....	26
4. Emaizak.....	27
4.1. Liburuen jatorria.....	27
4.2. Heriotzatik at agertzen diren azpigaiak.....	28
4.3. Heriotzaren eta gaixotasunaren inguruko informazioa.....	29
4.4. Doluaren tratamendua.....	31
4.5. Ilustrazioak.....	34
5. Ondorioak.....	36
5.1. Emaizten ondorioak.....	36
5.1.1. Liburuen jatorrien ondorioak.....	36
5.1.2. Heriotzatik at agertzen diren ondorioak.....	36
5.1.3. Heriotzaren eta gaixotasunen inguruko ondorioak.....	37
5.1.4. Doluaren tratamendua.....	38
5.1.5. Ilustrazioak.....	39
6. Mugak eta hobekuntzak proposamenak.....	40
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	41
7.1. Bibliografia.....	41
7.2. Aztertutako obrak.....	43
8. Eranskinak.....	45
8.1. I Eranskina.....	45
8.2. II Eranskina.....	74

## 1. SARRERA

Gradu Amaierako lan honek lehen hezkuntzako gai deserosoak bistara ekarri nahi ditu. Haur eta Gazte Literatura fantasia edo abenturazko liburuekin identifikatzea izaten da, “tabuak” diren beste gaiak alde batera lagaz, batik bat, sexua, gerrak, umearen barne konfliktoak, homosexualitatea, arrazakeria, bullyinga eta guk lan honetan jorratuko dugun gaia, hau da, heriotza eta honen trataera gaixotasun baten ondoren.

Baina, zer da “tabua”? “Tabuak” guk geuk sortzen ditugu, galdera askori ez baikara erantzuteko gai sentitzen eta, benetako erantzun bat eman ordez, mundu irrealak sortzen ditugulako. Baina, haurrak jakin nahi du, informazioa lortzeko eskubidea du, horregatik edozein gai tratatu behar dugu (Dominguez, 2015).

Dena dela, umeak optimismoa behar du, horregatik argi izan behar dugu edozein gai tratatu arren, amaiera zoriontsua eskaini behar diegula nahiz eta gai hori oso muturrekoa izan.

XXI. mendearen lehen urteetan handitu egin da heriotza gai nagusi duten haurrentzako liburu kopurua. Heriotza leundu egiten da, eta lan horietan adinekoei gertatzen zaien gertaera gisa aurkezten saiatzen da. Hurrek eta gazteek jakin behar dute bizitzak alde zoragarriak izan arren, beste alde ilun eta tristeak ere badituela eta horien artean heriotza dagoela.

Heriotza beti egongo da eta ezin dugu ezer ere egin horren aurka. Hurrekin gai horretaz hitz egiten badugu zama hori eramaten lagunduko diegu eta etorkizunean gertatuko zaizkien gauza txar batzuetarako prest egongo dira. Horretarako hainbat liburu baliagarri aurkitu ditzakegu gaur egun.

### **1.1. Justifikazioa**

Lan honen bidez haur literaturak heriotzari eskaintzen dion tratamendua aztertuko dugu, bereziki protagonistaren familiako bat gaixorik egon ondorengo kasuetan. Honetarako, Haur eta Gazte literaturak lagundu dezake umeak bizi izango dituen momentu txarrak zelan jasan ahalko dituen modu ezberdinetan adieraziz.

Zazpi urte nituela nire amak bularreko minbizi bat izan zuen. Ebakuntza egin ondoren kimioa hartu behar izan zuen. Horrek bultzatu zuen gurasoek niri kontatu behar izana nire amari ilea erori behar zitzaiolako. Orduan nik ez nuen oso ondo ulertzen zergatik bakarrik berari gertatzen zitzaion, beste ama guztiak gaixorik zeudenean ez baitzitzaion ilea erortzen. Beraiek hasieratik saiatu ziren azaltzen hori sendatzeko prozesu bat zela eta gero berriz ilea irtengo zitzaiola. Zorionez, ama guztiz sendatu zen, eta harrez geroztik nik pentsatzen nuen horrelako gaixotasunak beti sendatzen zirela.

Pare bat urte eta gero, hau da, nik bederatzi urte nituela, nire aitxixak beste minbizi mota bat izan zuen. Hasieran pentsatzen nuen, behin berak ebakuntza jasan ondoren eta tratamendua normaltasunez igaroz gero, sendatuko zela. Baina guztiz kontrakoa izan zen: ez zuen gaixotasun hura gainditu eta, zoritxarrez hil egin zen. Ez nuen ulertzen zergatik, nire amaren antzeko gaixotasun bat izan ondoren, ez zen sendatu.

Hau gertatu eta denbora gutxira nire beste aitxixari berdina gertatu zitzaion. Gaixotasun baten ondorioz berehala hil egin zen. Nik orduan ez nuen ulertzen zergatik nire bi aitxixak gaixorik jarri eta denbora gutxira hil egiten ziren. Nahiz eta nire gurasoak saiitzen ziren hura azaltzen, horrek ez zidan gehiegi lagundu, eta momentu oso txarrak pasatu nituen.

Urte horietan ez zeuden inolako libururik horrelako istorioak azaltzen zituenak, eta horrek bultzatu nau gai hau aukeratzera. Gaur egun erraztasunak daude horrelako gaiak jorratzen dituzten liburuak aurkitzeko eta, hauek eskura edukita, normaltasunez azaldu ahalko zaie umei heriotza bizitzaren parte bat dela.

Lan honetan aztertuko dugun gaia *heriotza gaixotasun baten ondoren* izango da, eta familiakoengan duen eragina.



Heriotza betidanik egon da literatura klasikoan, baina ez zen behin betikoa, hil ondoren berpiztu egiten baitziren protagonistak.

Heriotza unibertsala da, naturala, ezinbestekoa, eta horregatik ez dugu tabu bihurtu behar. Haur eta Gazte Literaturan gai deserosoak daudela denok dakigu, hain zuzen ere, hau baita gure lanaren izenburua eta guk ikertu dugunaren gakoa. Bestalde, esan beharra dago tabuak guk, hau da, gizakiok, asmatzen ditugula.

Haur eta Gazte Literatura gai berrien erronkaren aurrean jarri da, baina liburuek ez gaituzte ordezkatu behar, gure azalpenak guk eman beharko ditugu. Literatura baliabide bat da, baina ez konponbide bat. Haur bati heriotzaz hitz egiteko egokia izan daiteke liburu bat erabiltzea. Ezin dugu, ordea, guztia liburuaren gain utzi; liburu tresna bat besterik ez da.

Heriotzaren pedagogia korronteak heriotza azaltzeko hainbat jarduera proposatu ditu. Jarduera horiek bi multzotan bereizten ditugu: prebentzio jarduerak (heriotza gertatu aurretik egin beharreko jarduerak) eta jarduerak aringarriak (heriotza eta gero egiten diren jarduerak, dolua pasatzeko). Gure ustez prebentzio jarduerak garrantzitsuagoak dira. Gehienetan, heriotza gertatu denean bilatzen ditugu tresnak edo jarduerak heriotzaren inguruan hitz egiteko, eta beharbada, une hori ez da momentu egokiena umea minduta baitago. Horregatik pentsatzen dugu heriotzaren gaia dituzten liburuak aurretik landu behar direla.

Aukeratutako gaia, *Gai Deserosoak Haur eta Gazte Literaturan* kokatu dugu. Heriotza *gaixotasun baten ondoren eta umeak dolua zelan jasango duen* izango da gure berezitasuna.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Zer da Haur eta Gazte Literatura?

Haur eta Gazte Literatura ezin izango genuke aztertu lehenik eta behin ahozko literaturak daukan garrantzia azpimarratu gabe. Ahozko literatura ahoz aho transmititzen joan zen eta uneren batean idatzia izatera pasatu zen, baina horrek ez du esan nahi beraren izaera aldatu zuela. Ahozko literaturakoak izaten jarraitzen dute. Lan horiek, *Txanogorritxu ala Sagu anderea*, besteak beste.

Etxanizek (2005) ahozko euskal folkloreaken bildumen ipuinak ahozko literaturaren bizitasunaren adierazgarri direla adierazten du. Are gehiago, ezin dela egungo Haur eta Gazteentzako euskal literatura ulertu baldin eta ez badugu aintzat hartzen ahozko literaturari dion zorra. Horren eragina ageriko da hainbat autoreren lanetan, hala nola Bernardo Atxagaren, Patxi Zubizarretaren edota Angel Lertxundiren lanetan.

Haur eta Gazte Literaturaren kontzeptua azaltzeko hainbat ikuspuntu desberdin daude, Bortolussik (1985) dio hurrei zuzendutako literatura dela, ipuina dela Haur eta Gazte Literaturako azpigenere nagusia eta hau narratibaren barruan kokatzen da. Sorianok (1985), berriz, literatura hau, garai eta leku zehatz batean gertatzen dela dio, umeak testuinguruari esker ulertzen baitu. Igorle (idazle heldua izan ohi da) eta hartzaile (umea) baten artean ematen da, zeinek ume izateagatik errealitatearen inguruko ezagutza eta esperientzia gutxi duen. Cerverak (1989), aldiz, helburua artistikoa edo ludikoa duen umearen intereseko testutzat hartzen du. Tejerinaren (2004) ustez, haur literatura ona baldin bada ez dauka adinik, helduentzat ere aproposa baita. Rubioren (1998) ustetan Haur eta Gazte Literatura fantasiako literaturaren adar bat da. Hau egia dela ziurtatzen du, baina umeen burua gertakizunean islatuta edota identifikatuta ikustea ere asko gustatzen zaio

### 2.2. Euskal Haur eta Gazte Literaturaren bilakaera, sorreratik gaur eguneraino

Euskal haur literatura idatzia berandu hasi zen. Lehen liburuak XIX. mendearen hasieran irten ziren, lehen liburua 1803an Juan Bautista Aguirrek. Tolosan argitaratu zuen: *Confesioco eta Comunioco Sacrementuen gañean Eracusaldiac, Ienviciko Comunioraco prestatu behar diran Aurrentzat, eta bidez Cristauacientzat ere bai*.

1804an Bizenta Moglek "ipuionac" lana kaleratu zuen, Esoporen fabulen itzulpena, ipuin harrigarrien aurrean (Etxaniz, 1996).

Baina, oro har, haurrentzako liburuak berandu argitaratu ziren. Euskaraz Koldo Mitxelenak (1988) esaten zuenez, nolabaiteko atzerapen natural bat gertatu zen, horregatik, euskarazko hainbat lanek argitalpen data baino lehenagokoak zirela .

1890. urtean A. Apaolazak *Patxiko Txerren* argitaratu zuen, landa eremuan girotutako eleberria, A. Truebaren *Etxeko Judas* eleberrian oinarrituta. Bestalde, 1877an W. Webster ingeles predikariak *Basque Legends* argitaratu zuen, euskal ipuin herrikoien antologia onenetakoa.

Euskarazko liburugintza batik bat erlijiosoa izan zen, neurri handi batean, XX. mendera arte. Ahozko literatura bizi eta garrantzitsua dugu, tradizioaren eragina nabarmena da idazle askoren lanetan. XIX. mende bukaeran baserri eta nekazal mundua bultzatzen zuen erromantizismo berantiarrak eta sortu berria den sentimendu nazionalistak haur literatura bultzatu zuten, lehen ikastolen sorrerarekin batera. Mende honetan argitaratu ziren euskal literaturako hainbat lan gazteek balioetsi zituztelako daude gaur egun Haur eta Gazte Literaturako bildumetan. Bi liburu adierazgarrienak *Abarrak* (Kirikiño, 1918) eta *Pernando Amezketarra* (G, Mujika. 1927). Biak landa munduan daude girotuta eta umore ukitu nabarmena dute.

1960ko hasieran Euskal Haur eta Gazte Literaturak aldaketa garrantzitsuak jazo zituen: alde batetik ikastolak garrantzia hartu eta irakaskuntza euskaraz zabaltzen hasi ziren. Horretarako material didaktiko eta euskarazko irakurgaiak behar ziren. Bestalde, irakurketa atsegina eskaini nahi zenez, Marijane Minaberry idazleak 1961ean *Marigorri* ipuinaren bertsioa argitaratu zuen. 1963etik aurrera *Itchulingo anderea...* eta *Xoriakantari* idazlanak sortu zituen. Azken honetatik Oskorri (1997) folk taldeak, horietako zazpiren letra kanta hartu zituen *Marijanekantazan* diskoa sortzeko.

Gerra zibilarekin batera Haur eta Gazte Literaturaren garapena Francok moztu zuen, euskaraz hitz egiteko debekua ezarri baitzuen. Iparraldean, berriz, euskarazko obra batzuk argitaratu ziren. Franco hil ondoren, eta askatasun politikoa lortu eta gero, Haur eta Gazte Literaturak buelta eman zuen. Gero eta liburu gehiago eskatzen ziren baina argitaletxeen azpiegitura oso ahula zen. 1970ko hamarkadaren amaieran hiru euskal argitaletxe garrantzitsu jaio ziren, eta hauei esker sektorea eratzen hasi zen. "Hordago" izeneko argitaletxeak liburu politikoak plazaratu zituen, baina handik gutxira porrot egin

eta desagertu zen. “Elkar” eta “Erein” argitaletxeek 1980tik aurrera Haur literatura bultzatzeari ekin zioten. 1979an *Ipurbeltz* aldizkaria sortu zen eta haurrentzako euskarazko aldizkari moderno batean bilakatu zen.

1980tik aurrera garai berri bat sortu zen, aldaketa kualitatibo baina, batik bat, kuantitatibo ugariarekin. Argitaraturiko idazlanen kopurua ikaragarri handitu zen.

Hiru obra hauek Anjel Lertxundiren (1981) *Tristek kontsolatzeko makina*, Bernardo Atxagaren (1982) *Chuck Aranberri dentista baten etxean*, eta Mariasun Landaren (1984) *Txan fantasma*, Haur eta Gazte Literatura modernoaren hasiera markatu zuten.

Honez geroztik Haur eta Gazte Literaturako, idazlanen kalitateak garrantzi handia du, baita ilustratzaileenak ere. Haurrentzako liburuetan guztiz garrantzitsuak dira irudiak, eta zenbait kasutan irudiak du liburuaren pisurik handiena.

Bukatzeko, esan behar dugu Euskal Haur eta Gazte Literaturan beste hizkuntzetatik egindako itzulpenek garrantzi handia dutela modernitatera hurbiltzen gaituzte eta.

### **2.3. Heriotza, dolua eta eskola**

Herranek eta Cortinak (2006) galeraren fenomenoan oinarritutako heriotzaren pedagogia baterantz abiatzea proposatzen dute, eskolak ezin baitio bizkarra ematen jarraitu tabu bilakatu den gai transzendente honi. Izan ere, heriotzaz kontziente izatea bizitzaren orientaziorako gakoa da, baita hobeto eta osotasunez bizitzeko oinarria ere.

Poch eta Herrerok (2003) diote heriotzarekin eta doluarekin erlazionatutako gaiak presentzia eskasa dutela Lehen Hezkuntzan. Beste alde batetik, Diazek (2011) dolua azalduko den leku nagusietako bat eskola dela azaltzen du. Ondorioz, bertan laguntza ematen saiatu behar dira umea ahalik eta hobeto sentiarazteko. Arrazoi honengatik, heriotza baten ostean ikastetxeak hainbat alderdiren berri izan beharko luke, hala nola: nor hil den, nolako harremana zuen haurarekin, nola gertatu den, zelan eraman den gaixotasunaren prozesua, zein alderdi ezagutzen dituen umeak...

Ikasgelan heriotza lantzeko, Izagirrek (2003) bi planteamendu bereizten ditu: alde batetik, heriotzaren pedagogia, eta beste aldetik, doluaren pedagogia. Doluaren pedagogiak gelan sor daitezkeen krisien aurrean orientatzen laguntzen ditu irakasleak, une larri batean zein urrats eman behar diren.

Dolu konplexuen kasuetan, ikastetxeak laguntza psikologikoa proposa dezake. Heriotzaren pedagogiak ikasleek heriotza eta krisi egoeran gertatzen dena ulertzeko eta zentzua emateko lagungarria izango da.

Curriculumari dagokionez, Heziberri 2020 planean ez da heriotza aipatzen ezta dolu ere. Eskolan ez da umeak dolu prozesuan laguntzeko protokolorik sortu, baina helduei umeekin heriotzari buruz hitz egiten laguntzeko gida bat dago ikastetxeko sarean elkar banatuta. Ikasleek Lehen hezkuntzan oso material literario gutxi daukate heriotzari eta doluari buruz hitz egiten dutenak, baina horietako batzuk erabiliko ditugu gure korpusa osatzeko.

Umeei heriotza ezkututzen saiatzea alferrikako lana da. Izatez, haientzat onena gaia jorratzea eta behar duten laguntza eskaintzea da, betiere egia kontatzeko prestasuna izanez.

#### **2.4. Heriotzaren ulermena 6-12 urte bitartean**

Heriotzaren kontzeptua abstraktua eta konplexua da. Horren ondorioz, haurren adinak eragina izango du heriotzaren aurrean edukiko duten erantzunean.

6-12 urteko haurren ihardespina hobeto ulertzeko asmoz, jakin beharra dago umeek lau urte inguru dituztenean ez dutela pentsatzen hildako pertsona ez dela bueltatuko. Haurrak nagusitzen diren heinean, heriotza errealitate bat bihurtzen da. Umeak bost urte izan arte ez dira gai heriotzaren hiru ezaugarri nagusiak ulertzeko; heriotza aldaezina eta betikoa dela, bizi funtzio guztiak desagertzen direla eta, azkenik, gizaki guztiak noizbait hilko direla (Ordoñez eta Lacastak, 2007).

6-9 urte bitarteko haurrak, kapaz dira heriotzaren iraunkortasuna ulertzeko, hala ere ez du esan nahi aurre egiteko gai direnik. Beraiek badakite heriotzak aldaketa bat eragiten duela, hortaz aldaketa horrek zelan eragingo dien pentsatzera bideratzen dute haien arreta. Askotan hildako pertsona idealizatzen dute (Mateu, Flores, García-Renedo eta Gil-ek, 2013). Adin bitarte honetako umeek beraien hiztegia zabalagoa dutenez, kapaz izango dira gaixotasunei buruzko kontzeptu berriak ulertzen joateko, baita osasunari erlazionatutako ideia berriak ulertzen joateko. Gehienetan heriotza pertsona nagusiei gertatzen zaiela uste dute. Aldi honetan umeak askotan heriotza pertsonifikatu egiten du *Jakes eta herio* (Bowley, 2012) liburuan bezala, eta beraien

familiakoak eramatera etortzen dela sinisten dute. Ezezagunaren eta familiakoen banaketaren beldur dira eta amorrua, errua, haserrea, bakardadea eta kontzentrazio faltarekin adierazten dute.

Jarraitzeko, 9-12 urte bitarteko umeek badakite heriotza gertatzen denean aldaketak bizi izango dituztela. Badakite heriotzak ez duela atzera bueltarik. Adin honekin heriotzaren kontzeptua helduena bezalakoa da. Badakite heriotza bizitzako momenturen baten helduko dela. Pentsamendu abstraktu eta filosofiko bat erakusten dute, kausa eta ondorioa erlazionatzeko. Ez dituzte beraien sentimenduak adierazi nahi, hortaz nerabegaroko bihurrikeriarekin erantzuten dute.

Ikusten dugunez, heriotzaren kontzeptua haurtzarotik nerabegarora garatzen joaten da, ulertu arte heriotzak ez duela atzera pausorik. Ume gehienek galdera asko dituzte heriotzari buruz eta garrantzitsua da helduok entzutea eta erantzuten jakitea. Ez dugu ahaztu behar heriotza prozesu natural bat dela eta hiztegi ulergarri batez umei hitz egin behar diegula.

## HERIOTZA UMEEN ADINAREN ARABERA

ADINA	HERIOTZAREN KONTZEPTUA	JARRERAK
<b>6-9 URTE BITARTEAN</b>	- Heriotzaren iraunkortasuna ulertu baina ez aurre egin. - Heriotza pertsonifikatzen dute.	Amorrua, haserrea, errua, bakardadea, kontzentrazio falta eskolan, ezeztatzea
<b>9-12 URTE BITARTEAN</b>	-Heriotzak ez du atzera bueltarik - Aldaketak bizi izango dituzte. - Bizitzaren momentu batean helduko da.	Ez dituzte sentimenduak adierazi nahi, bihurrikeria, antsietatea, heriotzari beldurra, lo egiteko arazoak eta errendimendu akademiko baxua.

### **2.4.1. Nola azaldu haurrari heriotza**

Arnalek (2012) dioenez haur bati heriotza kontatzeko, egokia izan daiteke liburu bat erabiltzea. Baina, ezin dugu, guztia liburuarengan utzi, liburua tresna bat besterik ez baita. Heriotzaren pedagogia korronteak heriotza azaltzeko hainbat jarduera proposatu ditu. Jarduera horiek bi multzotan bereizten dira:

- Prebentzio jarduerak: heriotza gertatu aurretik egin beharreko jarduerak dira.
- Jarduera aringarriak: heriotza gertatu ondoren egiten direnak

Arnalen (2012) ustez garrantzitsuagoak dira lehenengoak. Askotan, heriotza bat gertatu denean bilatzen ditugu jarduerak heriotzaz hitz egiteko, baina une hori ez da aproposena izaten umea minduta baitago.

### **2.5. Dolua eta bere faseak 6-12 urte bitartean**

Dolua latineko *dolium* hitzetik dator, eta honek sufrimendua edo atsekabea esan nahi du. Dolua lotura afektibo bat apurtzen denean ematen den erantzun emozionala da, eta bertan faktore psikologikoen, fisikoen eta sozialek parte hartzen dute (Cortina eta De la Herrán, 2008). Doluari buruz hitz egitean ohikoa izaten da heriotzak sortutako egoeretara mugatzea, aitzitik, maite dugun pertsona baten heriotzaz aparte, animalia, herrialde, etxe aldaketa... ager daitekeen sentimendua izan ahalko da.

Bestalde, Bowlby-k (1986) dio atxikimendua sentitzeko ezinbestekoa dela gizabanakoarekin lotura afektibo sendo bat izatea. Horregatik, umeak lotura hori gehienetan ama edo aitarekin izaten du helduak bihurtu arte. Lotura afektibo hori apurtzen denean dolu prozesua hasten da.

Kesler eta Kübler-Ross-en (2010) ustez, umeek maitatzeko gai diren heinetik mina sentitzen dute. Ume batentzat dolu prozesua gogorra da, askotan horrela ez dirudien arren. Antsietatea sentitzen dute eta gero tristura. Sentimendu guztiak ulertzen ez dituzten arren, hauek sentitzeko gai dira eta dolu prozesuan helduek beraien gidariak izan behar dute (Bowlby, 1986).

Worden-entzat (1997) dolua ez da soilik pertsona batek galeraren aurrean bizitzen duena, baizik eta prozesu aktibo bat. Pertsona horrek denboraldi horretan ataza batzuk burutu behar ditu galera onartu ahal izateko. Idazle honentzat lau dira doluan dagoen

pertsonak egin jasan behar dituen atazak: lehenengo galeraren errealitatea onartzea, bigarrena, emozioen lanketa eta galeraren aurreko mina jasatea, hirugarrena, hildakoa jada ez dagoen ingurura moldatzea eta azkenengo ataza, hildakoa emozionalki berrezarri eta bizitzen jarraitzea.

Meza, García, Torres, Castillo, Sauri eta Martínez-ek (2008) dolua bizitzen ari diren pertsona guztiek hiru etapa desberdin pasatu behar dituztela adierazten dute:

- Hasiera edo lehenengo etapa: fase honek ez du iraupen luzea izaten, hildakoaren berri izaten duen momentutik, hildakoaren agurraren momentura bitartean luzatzen da. Lehenengo momentu hauek era bat nahasgarriak dira umeentzat. Shock egoera eta larritasuna intentsitate desberdinean eragin dezakete, baina denek pasatzen dute. Sentsibiltate handia edo bat bateko umore aldaketak izan ditzake. Honetaz gain, alderdi intelektuala blokeatu daiteke.
- Erdiko etapa: fase honetan bi une desberdin bereizi daitezke. Lehenengoan amorrua hildakoarekin ezin duelako egon. Bere haserrea hildakoarengan, eta bere galeraren ustezko arduradunarengan bota dezake. Bigarren momentuan, aldiz, etsipena sentitzen du. Ezertarako gogorik gabe dago, bizitzarekiko interesa galdu du, berarentzat mundua hutsik eta erakargarritasunik gabe dago.
- Amaierako etapa: Umearen bizitzaren garapena, onarpena eta berrantolaketaren unea da. Inguruarekiko interesa eta motibazioa sentitzen hasten da, desioa edo nahi berriak sentitu eta adierazten ditu. Tristura egoera gutxituz hasten da, pena eta mina gutxitzen den heinean. Haurrak lasaitasun sentsazioak biziko ditu. Doluaren amaiera, berriz ere maitatzeko gaitasuna berreskuratzen denean azaltzen da.

### 2.5.1. Dolu motak

Dolu motak sailkatzeko autore desberdinen ikuspuntuak hartu ditugu (Torres Gómez, 2008; Gala León, 2008 eta Meza Dávalos, 2008).

- Arrunta: Galera baten ondorioz sortzen diren jarrerak, sentimendu edo erantzun naturalek osatzen duten tarteaz arduratzen den dolu mota da. Erantzun hauek denboran luzatzen badira edo arazo psikologiko batean bihurtu, dolu patologikoa izateko arriskua egon daiteke.



- Aurrekoa: Heriotza laster gertatuko dela aurreikustean, gaixotasun luze baten ondorioz, alzheimerra, drogen ondorioz... Kasu hauetan doluaren prozesua heriotza gertatu baino lehenago hasten da, eta hau da guk aztertu duguna.
- Atzeratua: Betirako heriotza gertatu dela uste denean sortzen den dolu mota da. Askotan, umearen emozioak gehiegi kontrolatzen dituzten pertsonengan sortzen da, bere unean ezin izan baitzuten agurtu.
- Inhibitua: Doluaren adierazpena ez du pairatzen, oraindik ere ez duelako gertatutako galera onartzen, ezta aurre egiten ere. Ez dio bere buruari hildakoarengan pentsatzen uzten. Ohikoa da bat batean negarrez hastea, inolako arrazoirik gabe.
- Geroratutakoa: Berandu bada ere, bere pena sentimendua kanporatzen hasten da. Umeetan ez da ohikoa.
- Kronikoa: Urteetan zehar luza daiteke, askotan galera jasan duen pertsonak erlijio osagaien artean murgilduta aurki daiteke.
- Konplexua: Doluaren ez-ohiko erantzunei dolu konplexu izena ematen diote. Umeak jarrera desegokiak erakutsiz edota egoera horretan mantentzen da doluaren prozesuan aurre egin ezinik. Tristura handia izaten du denbora luzean eta horrek depresioa ekar dezake.

### 3. METODOA

#### 3.1. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburua heriotza gaixotasun baten ondoren nola jasotzen den gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan aztertzea izango da. Hortaz, gure gaiaren inguruan gehiago sakontzeko, arreta berezia jarriko dugu haur literaturako gai deserosoetan.

Gaur egun gure gizarteak ez daki heriotza gazteen artean zelan tratatu behar den, horregatik gai hau saihesten saiatzen gara, batez ere gehiegi babesteko ohitura daukagulako, Arnalen (2011) ustez, justu kontrakoa eragingo dugu; batetik haurra gehiago balietziko du daukana; eta, bestetik, lasaiago sentituko da. Haur eta Gazte Literatura oso errekurtsu baliagarria bihurtzen da umeei momentu txar horiek aurrera eramaten laguntzeko. Hau gertatzen da umeak batzuetan bere burua islatuta ikus dezakelako obra horietako protagonistarekin beraiek ere horrelako momenturen bat igaro izan dutelako, eta horrek umeengan konfiantza eta laguntza sorrarazi dezakelako.

#### 3.2. Hipotesiak

##### 3.2.1 Lehenengo hipotesia.

Haur eta gazte literaturan protagonistak umeak (Colomer, 1998) izaten dira eta irakurlea pertsonaia nagusiarekin identifikatzen da. Baieztapen hauekin bat etorriz, gure ustetan eta aukeratutako liburuak aztertuz, protagonista, hau da, dolua jasaten duena, umea izango dela pentsatzen dugu.

PROTAGONISTA UMEA DA?	
BAI	EZ

### 3.2.2. Bigarren hipotesia.

Haurrentzako liburuetan sentimenduak adierazten dituzten pertsonaiak gehien bat neskak (Colomer, 1994) izaten dira, horregatik dolua jasango duen pertsonaia emakumea izango dela pentsatzen dugu.

DOLUA JASATEN DUEN PROTAGONISTA?	
NESKA	MUTILA

### 3.2.3. Hirugarren hipotesia.

Arraroa izaten da Haur eta Gazte Literaturako liburuetan familiako bat hiltzea, baina guk aukeratutako gaia (gaixotasun baten ondorioz familiakoa hiltzea) hau izanik, pentsatzen dugu hil egingo dena, arrazoi naturalengatik (Arnal, 2011), aitxitxa/amama izango dela.

HILDAKOA AITXITXA/AMAMA IZANGO DA?	
BAI	EZ

### 3.2.4. Laugarren hipotesia.

Normalean, familian norbait gaixorik baldin dago arazoa umeei ezkututzen saiatzen, beraiek ez sufritzeko asmoarekin. Horrela, aitzakia honekin bakoitzak bere bizitza aurrera eramateko erraztasun handiagoa izango duela pentsatzen dugu eta honek islada izango du aztertuko ditugun obretan.

UMEARI GAIXOTASUNARI BURUZ HITZ EGITEN ZAIO?	
BAI	EZ

**3.2.5. Bostgarren hipotesia.**

Gertatzen da familiako norbait hilzorian dagoenean, ez zaiela umeei pertsona hori agurtzen uzten. Izatez, ahalegintzen gara umeak hilzorian dagoen pertsona hori ez ikusten. Gure ustez, horrela “trauma” antzerako hori saihestu ahalko diegu eta beraien egunerokoan ez dute hori gogoan edukiko. Ikusiko dugun egoera hau, aztertu beharreko obretan islatuko dela pentsatzen dugu. Dena dela, Worden-en (1997) hitzetan agurra norbanakoaren beharrei eta sinesmenei lotuta dago. Beraz, helduak malgutasunez eta sentsibilitate handiz jokatu beharko dugu, horrela umeak agurtzeko aukera baldin badu, heriotza onartzeko bide egokian doala pentsatuko genuke.

UMEAK AUKERA DU HILZORIAN DAGOENA AGURTZEN?	
BAI	EZ

**3.2.6. Seigarren hipotesia.**

Haur literaturako obretan protagonista gehienak umeak diren heinean (Colomer, 1997), ohikoa da pertsona bat hil ondoren beste zerbait bihurtzen dela esatea (izarrak, loreak, zuhaitzak...), horrela heriotza beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera izango baitute eta hildakoarekin konexioa mantentzeko ere erraztasun handiagoa lortuko baitute. Gure ustez heriotza azaltzeko bide honek presentzia nabarmena izango du aztertuko ditugun obretan,

HILDAKOA BESTE ZERBAIT BIHURTU DELA ESATEN DIETE UMEEI?	
BAI	EZ

### 3.2.7. Zazpigarren hipotesia.

Duraneke (2009) baieztatzen duen bezala, Haur eta Gazte Literaturako liburuak ilustrazioz eta testuz beteta egoten dira. Testuak ilustrazioetan ez dagoena adierazten digu eta ilustrazioek, berriz, testuan argi gelditzen ez dena azaltzen digu. Gure kasuan, liburu hauek 6-12 urte bitartekoentzat izanik, heriotzaren tratamendua era erraz batean ulertzeko askoz erosoagoa da ilustrazioaren bidez heriotza erakustea hitzez (testua) bakarrik baino. Beraz, gure ustez, gazteenentzat heriotza zerbait ezezaguna denez, ilustrazioen bidez forma bat ematen saiatzen da haur literatura.

HERIOTZA ILUSTRAZIOEN BIDEZ ADIERAZITA DAGO?	
BAI	EZ

### 3.2.8. Zortzigarren hipotesia.

Mota hauekako liburuetan non familiako norbait hil egiten den, ez zaie gehiegizko garrantzirik ematen doluaren faseei. Normalean, liburuan familiako norbait gaixorik agertzen da eta horren heriotzarekin bukatu. Meza-k (2008) esaten duen bezala, gaixotasun bat agertzen denean eta honek ez daukanean atzera pausorik, dolua hastean da. Momentu horretan tristura puntu bat agertzen da, baina hori adaptazio prozesuaren zati dela argi lagatzen du Meza-k (2008). Gure ustez hau izango da dolu faseei egingo zaien erreferentzia bakarra.

DOLUA NORMALTASUNEZ GARATZEN DU PROTAGONISTAK?	
BAI	EZ

### 3.2.9. Bederatzigarren hipotesia.

Betidanik pentsatu izan da gurasoak izango direla umeei dolua pasatzen lagunduko dietenak, hauek baitira umeekin denbora gehien egoten direnak eta gauza txarretatik babesteko prest daudenak.

Gaur egun eskoletako hainbat irakasle laguntza eskaintzeko prest egoten dira eta batzuetan heriotzari buruz hitz egitea komenigarria dela uste dute (Herranek eta Cortinak, 2008). Baina, gure ustez, normalena izango litzateke honetaz gurasoekin hitz egitea eta hauek izatea dolua pasatzen lagunduko zutenak, eta horrela agertuko da aztertuko dugun korpusean.

GURASOAK DIRA DOLUA GAINDITZEN LAGUNTZEN DUTENAK?	
BAI	EZ

### 3.2.10. Hamargarren hipotesia.

Kontuan harturik Haur eta Gazte Literaturak amaiera zoriontsuak eskaini ohi dituela, ez da kontuan izaten badaudela beste mota batzuetako amaierak (Colomer, 1998). Dena dela, gure ustez nahiz eta heriotza eta honen osteko doluarekin bukatu, hau esperientzia lagungarri bat bezala hartuko da gaur egungo literaturan (guk aztertutakoak).

ESPERIENTZIA PROTAGONISTARENTZAT LAGUNGARRIA DA?	
BAI	EZ

### 3.3. Informazioa jasotzeko baliabideak

Aztertutako liburuen informazioa jasotzeko, fitxa bibliografiko bat osatu dugu, atal desberdinez osatutakoa eta hainbat aldiz zuzendua. Hau guztia lehen aipatutako hipotesiekin bat egin ahal izateko egina izan da.

Fitxa hau bost atal desberdinetan banatuta dago, non atal bakoitzak guk irakurri ditugun 10 liburuen informazio zehatza ematen digun. Lehenengo atalean liburuaren informazio generala eskaintzen dugu, bertan zati hauek bereizten direlarik: idazlea, argitaletxea, izenburua, itzulita dagoen, eta argitalpen urtea. Bigarren atalean,

heriotzaz aparte, ea beste gairen bat lantzen den irakurritako liburuan aurkituko dugu. Hirugarren atalean, heriotzan eta hau izatera eraman duen gaixotasunari buruzko informazioa aztertuko dugu. Horien artean aurkitu daitezkeen osagai batzuk hauek dira: nor hiltzen den, zein gaixotasunaren ondorioz hil egiten den, nola jakinarazten dioten protagonistari maite duen pertsonaren gaixotasuna eta heriotza. Laugarren atalean, berriz, doluari buruz hitz egiten da; nor den dolua pasatzen duen pertsonaia, nola garatzen duen dolua, nork laguntzen dion, ea dolua gainditzeko duen. Bostgarren eta azken atalean ilustrazioei buruz hitz egiten dugu, hauek ere literaturaren osagai garrantzitsuak baitira. Azpi atal honetan ilustrazioen bidez ea heriotza irudikatzen den jakingo dugu, eta baiezkoan, ze baliabide erabiliko diren.

Azken batean, metodorako fitxa honek eskaintzen dizkigun datuen bidez, aterako diren emaitza objektiboen analisia eginez, bukaerako ondorioa prestatzeko baliagarria izango den informazioa jasoko da.

Jarraian, lehen aipatutako fitxa ikusteko aukera izango dugu, atal bakoitzeko zehaztasunekin.

IDAZLEA:			
IZENBURUA:			
Argitaletxea	Itzulpena		Argitalpen urtea. Herrialdea . Hizkuntza
	Bai	Ez	Itzulpen urtea. Jatorrizko hizkuntza

HERIOTZAZ APARTE, ZE BESTE GAI LANTZEN DIRA IPUIN HONETAN?							
Adiskidetasuna	Maitasuna	Gainditzea	Mirespena	Errespetua	Pazientzia	Elkartasuna	Besteak
NOTAK:							

HERIOTZA ETA GAIKOTASUNAK					
Nor hiltzen da?					
Aitxita	Amama	Ama	Aita	Beste familiako bat	Animalia
Zein gaixotasunaren ondorioz hil egin da?					

Minbizia	Zahartzaroko gaixotasuna	Drogen eraginez	Gaixotasun mentala	Ez da agertzen	Besteak
NOTAK:					

Zein da dolua jasaten duen pertsonaia?					
Nagusia		Umea		Animalia	
Gizona	Emakumea	Mutila	Neska	Gizatiartua	Ez Gizatiartua
Nola jakinarazten diote protagonistari maite duten pertsonaren gaixotasuna					
Egia esaten diote	Gezurra esaten diote		Egia beste modu batean kontatzen diote*	Besteak	
NOTAK:					

Nola jakinarazten diote protagonistari maite duten pertsonaren heriotza							
Egia esaten diote	Gezurra esaten diote		Egia konparazioen bidez kontatzen diote	Besteak			
NOTAK:							
Nork laguntzen dio protagonistari ulertzen zein gaixotasun mota sufritzen duen bere gertukoak?							
Aitak	Amak	Aitxixak	Amamak	Lagunek	Bera bakarrik	Besteak	Ez da agertzen
NOTAK:							

<b>DOLUA</b>			
Nola garatzen du dolua pertsonaia nagusiak?			
Normaltasunez (Onarpen fasea)	Gaizki eramaten du (Ezeztapena, amorrua, negazioa)	Ez du dolurik jasaten	Ez du doluari buruz hitz egiten
NOTAK:			

Nork laguntzen dio protagonistari dolua jasaten?							
Aitak	Amak	Aitxixak	Amamak	Lagunek	Bera bakarrik	Besteak	Ez da agertzen



NOTAK:		
Pertsonaiak dolua gaintzen du?		
BAI	EZ	
	Eraginik al dauka?	
	BAI	EZ
NOTAK:		

Heriotzaren ondorengoari buruz hitz egiten da?	
BAI	EZ
Ze ikuspuntutatik?	
Erlijosotik      Laikotik	
NOTAK:	

ILUSTRAZIOA			
Zerekin irudikatzen da heriotza ?			
Testua	Ilustrazioak	Biak	
Ze baliabide erabiltzen da heriotza ilustrazioen bidez irudikatzeko			
Objektuak	Koloreak	Pertsonaiak	Besteak
NOTAK:			
Zerekin irudikatzen da gaixotasuna?			
Testua	Ilustrazioak	Biak	
Ze baliabide erabiltzen da gaixotasuna ilustrazioen bidez irudikatzeko			
Objektuak	Koloreak	Pertsonaiak	Besteak
NOTAK:			

### 3.4. Korpus literarioa

Korpusa sortzerakoan idazle desberdinak aukeratu digu, horrela ikuspuntu desberdinak aztertuko ditugu eta ondorioak ateratzerako orduan aukera desberdinak ikusi ahalko ditugu. Behin hau landuta lana ahalik eta aberasgarrien izaten saiatuko gara.

Adin tarte honetarako oso zaila izan da heriotzaren inguruko liburuak aurkitzea oso gutxi idazten baitira, are gehiago gaur egungoak izatea. Korpusa osatu, identifikatu eta aukeratzeko, hainbat argitalpen, katalogo, eta Eibarko Juan San Martin Liburutegiak eskainitako laguntzarekin, irizpide hauek jarraitu ditugu:

- Gaia: Gaixotasun baten ondorioz familiar baten heriotza agertzea.
- Hizkuntza: Euskarazko literaturako lanak edota euskarara itzulitakoak. Azkeneko aukera gazteleraz idatziak edota gazteleraz itzuliak.
- Adina: Lehentasuna eman diogu 6-12 urte bitarteko umeei zuzenduta egoteari.
- Denbora mugaketa: Gehien bat 15 urtetik honako liburuak izango dira. Baina, mota honetakoak gutxi idazten direnez, gure bilaketa handitu behar izan dugu 19 urtetik honako liburuetara.

Arestian azaldutako irizpideak jarraituz, 10 liburu aurkitzea lortu dugu, gehienak euskaraz idatziak edo itzuliak. Denak azken 19 urtetatik honakoak izanik eta 6-12 urte bitartekoentzat dira. Gai nagusia gaixotasunaren ondoriozko familiar baten heriotza da.

Bausá, R. eta Peris, C. (2004). *¡Buenas noches abuelo!*.Lóguéz.

Bowley, T. eta Pudalov, N. (2012). *Jakes eta herio*. OQO.

Calleja, S. (2002). *Aitatxo balkoian dago*. Desclée de Brouwer.

Legendre, F. eta Fortier, N. (2005). *Gajos de naranja*. Tándem.

Mendiguren, X. eta Gallego, P. (2007). *Miss Txatarra*. Elkar.

Misschaert, I eta Coenen, M. (2010). *Baltaxar inoizko astorik bakartierna*. Ttartalo.

Santisteban, K. (2009). *Aitaren bihotza*. Desclée de Brouwer.

Taniuchi, K. eta Takeichi, Y. (2007). *Norbait deika ari zait*. Hiria.


Tibo, G. eta Melason, L. (2008). *El granviaje del señor M*. Kalandraka.

Zubeldia, I. (2006). *Ama!*. Giltza.

## 4. EMAITZAK


### 4.1. *Liburuen jatorria*

Ikertutako liburuen %30a (N=3) euskaraz idatzita daude, beste %40a (N=4) euskarara itzuliak dira, %10 (N=1) gazteleraz idatzita daude eta gelditzen den %20a (N=2), berriz, gaztelerara itzulita daude.




Behin liburuen hizkuntzen grafikoa eginda izanik, orain argitalpen urteei erreferentzia egingo diegu. Jakinda guk landu dugun gaia gai deseroso bat dela, oso gutxi aurkitu ahal izan ditugu.

Liburu guztiak 2002-2019 urte bitartekoak dira. Lan literario hauetatik %40a (N=4) 2002-2006 urte bitartekoak dira, beste %50a (N=5) 2007-2010 urte bitartekoak izan dira, eta azkenengo %10a (N=1) 2011-2019 urte bitartekoak.



#### 4.2. Heriotzatik at agertzen diren azpigaiak

Gure gaia gaixotasun baten ondoren familiar baten heriotza izanda, badakigu korpuseko lanek horretaz hitz egingo dutela eta hau izango dela gai nagusia, baina, beste gai batzuk ere ikusteko aukera izan dugu. Adiskidetasunari buruz %10ak (N=1) hitz egiten dute, maitasunari buruz %20ak (N=2), maite duten pertsonaren heriotza gainditzeari buruz %10ak (N=1) hitz egiten dute, mirespenari buruz %10ak (N=1) ere bai, errespetuari buruz %20ak (N=2), pazientziari buruz %10ak (N=1), elkartasunaren inguruan %10ak (N=1) eta azkenik beste gai desberdin batez %10ak (N=1) hitz egin dute.




### 4.3. Heriotzaren eta gaixotasunaren inguruko informazioa

Atal honetan aztertu dugu nor izan den gaixotasun baten ondorioz hildako pertsonaia. %20 (N=2) batean aitxitxia izan da hildako pertsonaia, %30 (N=3) batean ama izan da, %20an (N=2), berriz, aita, beste %20 (N=2) batean umea eta, azkenik, %10 (N=1) batean animalia bat izan da, kasu honetan gizatiartutako animalia, hain zuzen ere, ama.




Atal honekin jarraituz, orain zein gaixotasunaren ondorioz hil egin diren adieraziko dugu, nahiz eta zenbait kasutan ez den argi gelditzen, hain zuzen ere %40 (N=4) batean. Beste %20 (N=2) batean minbiziaren ondorioz hil egin dira, %30 (N=3) batean, berriz, zahartzaroko gaixotasunen ondorioz. Azkenik, %10 (N=1) batean HIESaren ondorioz.



Zati honekin bukatzeko azkeneko grafikoan protagonistari nola jakinarazten dioten izaki maitearen heriotza ikusiko dugu.

Gehien batean egia esango diote, hain zuzen ere, %50 (N=5) batean, batzuetan beraiek ikusten dutelako edota ondoren esaten dietelako. %10 (N=1) batean, berriz, gezurra kontatzen diote, beste %10 (N=1) batean heriotza konparazioen biden adierazten dute; adibidez, Bausá-ren (2004) *¡Buenas noches abuelo!* liburuan, aitxitxa hilda dago eta amak esaten dio zeruko izar bat bihurtu dela.

Azkenengo %30ean (N=3) beste era bat erabiliko dute, batik bat, Santisteban-en (2009) *Aitareen bihotza* liburuan hasieratik aita hilda dagoenez, ez da agertzen nola adierazten dioten umeari aitaren heriotza.




#### **4.4. Doluaren tratamendua**

Badakigu heriotzaren ondoren momentu txarrak etortzen direla, eta hauek doluaren parte direla. Ezinbestekoa da hau gainditzea gure bizitza aurrera eramateko, beraz, oso puntu garrantzitsua dela pentsatzen dugunez, doluarekin lotutako hurrengo atalak aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin aipatu nahiko genuke Haur eta Gazteentzako liburuetan gai hau oso gutxi ukitzen dela. Horregatik arazo handiak izan ditugu dolua jorratzen duten liburuak aurkitzeko. Historia gehienetan heriotzaren ondoren zer dagoenaz ez da gehiegi hitz egiten eta doluaren tratamendua oso eskasa izaten da, baina, hau alde batera utzita, grafikoei ekingo diegu.

Hasteko, gure lehenengo atalean pertsonaia nagusiak prozesu hau zelan garatzen duen hitz egingo dugu. Dolua bi fase nagusitan banatuko dugu, bata normaltasuna edo onarpen fasea, eta beste alde batetik, gaizki eramaten duela, hau da, ezeztapen fasean daude.

Hau horrela %40 (N=4) batean protagonistak dolua normaltasunez eramaten du, hau da, onarpen fasean dago. Beste alde batetik gaizki eramaten dutenak %30a (N=3) dira, hauek ezeztapen fasean daude, eta azkeneko %30ak (N=3) ez du doluari buruz hitz egingo. Beste pare bat liburuetan ez da doluari buruz hitz egiten, heriotzarekin bukatzen delako.




Gehienetan protagonista umea izanda, ezinbestekoa da dolua pasatzeko norbaiten laguntza jasotzea. Horregatik, orain ikusiko dugun grafiko honetan zeinek laguntzen dion aztertuko dugu.

Argi gelditzen da gehienetan familiaren laguntza izango dela, batzuetan gurasoek soilik lagunduta, eta beste kasu batzuetan, gurasoetako bat hil egiten denean, aiton amonen papera garrantzitsua izaten da baita ere bizirik gelditzen den gurasoari lagundu ahal izateko. Beste batzuetan eguneroko bizitzan lagunaren ekarpenari esker, hau da, eskolan, kalean edota parkean, aurrera atera ahal izango dira.

Ehunekoerri erreparatzen badiegu argi ikusten da %60 (N=6) batean gurasoak direla umei dolua garatzen laguntzen dietenak, baina honen barruan bi liburuetan aiton amonek ere lagunduko dute. Beste %20 (N=2) batean lagunak izango dira hemen garrantzitsuak. Hurrengo %10ean (N=1) pertsona askok lagunduko diete gure protagonistei, hauek bidaia luze bat egiten ari baitira. Azkenik, %10 (N=1) batean ez dute doluari buruz hitz egingo, beraz, ez da agertuko.





Doluaren tratamenduaren grafikoekin bukatzeko, gure protagonistak dolua gainditzen duen ala ez erantzungo dugu.

Gehienetan pentsatzen dugu hau erraza izaten dela baina, ez baldin baditugu hasierako faseak ondo igarotzen, oso zaila izango da hau normaltasunarekin aurrera eramatea eta honek gure protagonista nagusiari depresioa, amorrua ala negargura eragingo dio.

Lehen esan bezala, kasu guztietan dolua gaindituko dute, eta kasu batean soilik ez dutenez doluari buruz hitz egiten, ezin dugu jakin gainditu duen. Beraz, gure grafikoan ikusi ahalko dugu %90 batean gaindituko dutela nahiz eta batzuetan gehiago kostatu, eta beste %10 batean ez dela agertzen jarriko dugu.



#### 4.5. Ilustrazioak

Ilustrazioak garrantzi handia izaten du Haur eta Gazte Literaturan, askotan umeak gehiago zentratzen baitira marrazki edo ilustrazioetan testuan baino. Urteak betetzen doazen heinean bie garrantzi berdina ematera pasatzen dira.

Orain ikusi ahalko dugun grafikoan, gure ikuspuntu nagusia heriotza zelan irudikatuko den izango da.

Hiru aukera desberdin erabiliko ditugu: alde batetik gure ipuina soilik testuen bidez irudikatuko da; beste batzuetan ilustrazioen bidez; eta beste kasu batzuetan bi aukerak batera izango ditugu, hau da, ipuina bai testuaren baita ilustrazioen bidez agertzea.

